



www.begiko.com

© Testua: 2007, JASONE OSORO IGARTUA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-26-1

Lege-gordailua: M-16316-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Bederatzitik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Jara

Bartzelonan

Jasone Osoro

Azaleko irudia: Alex Macho

begiko

Dunari

Ihintzaren gutuna

Hemen denak antzera jarraitzen du. Tira, ez, zeu falta zara, Jara. Bi hilabete pasatu dira Bartzelonara joan zinenetik eta iruditzen zait bizitza erdia daramagula elkar ikusi gabe. Amari esan diot ea horra joaten uzten didan, baina badakizu nola-koa den, negoziaketa hasi da. Ea Aste Santuko oportretan eskapatatxo bat egiten dudan. Eta zuek? Noiz zatozte? Hasieran bi astean behin edo etorriko zinetela esan zenidan. Ez da hain erraza, ezta? Zelan zure aita lan berrian? Eta zu eskolan? Oso ezberdina al da jendea Bartzelonan? Ba al dakizu batzuetan beldur naizela? Pentsatzen dut horko bizi-modura ohituko zarela eta herria aspergarria egingo zaizula, jende interesgarria ezagutuko duzula eta gutaz ahaztuko zarela...

Jarak gorputz-jarrera aldatu zuen. Ohean etzanda egotetik, burkoa zuzen jarri eta esertzera

pasatu zen. Mesanotxean zuen Coca-cola lata hartu eta tragoxka bat egin zuen.

—Nola ahaztuko naiz zuekin, txolina? —erantzun zion, ozen, Ihintzari, eta eskutitza irakurtzen jarraitu zuen.

10 ... *Ea laster jartzen duzuen Internet etxean eta, hartara, Twitterrean hitz egin ahal izango dugu egunerero! Eskutitzak idaztearen kontu hau nekagarria da! Tira, zertaz ari nintzen...? A, bai, ahaztearen kontuaz eta. Ikusi ahal zaitut ohean etzanda barrez, zeinen tuntuna naizen esanez, ezta? Baina egia da, zure falta ikaragarri sumatzen dut.*

Tira, gaia aldatuko dut, ze martxa honetan maitemindu batek baino ñoñokeria gehiago esaten hasi behar dut! Eta maitasunaz ari naizenez... Topatu al duzu zerbait interesgarria hor? Ziur zure gela mutil katxarroz beteta dagoela. Apustu egingo nuke zeu zarela modako neska. Pelikuletan hala izaten da, behintzat, neska berria eta polita iristen da ikasgelara eta mutil guztiak berehala atzetik izaten ditu. Zuk ere bai? Dena kontatu behar didazu, den-dena!...

—Jakingo bazenu! Pelikuletan ez al duzu ikusi neska berriarekin inork ez duela hitz egin nahi izaten?

Une horretan, Jararen ateko gela ireki eta ama sartu zen.

—Ama, zenbat bider esan behar dizut sartu aurretik atea jotzeko!

—Barkatu, neska, ahaztu egin zait.

—Zer nahi duzu?

—Aitak deitu du, lanean berandutu egin zaiola eta geu hasteko afaltzen.

11

—Gaur ere berandu? Iritsi ginenetik uste dut asteburuetan bakarrik afaldu dugula denok batera.

—Ez da erraza berarentzat. Enpresa berria, lan berria eta ondo geratu beharra, badakizu.

—Bai, ni eskolan bezala —aho txikiarekin esan zituen hitzok Jarak, bere buruarentzat.

—Zer? —galdetu zion amak.

—Ezer ere ez, ezer ere ez.

—Tira, etorri afaltzera.

—Oraintxe noa, Ihintzaren eskutitza irakurtzen amaitu eta segituan.

Amak atea itxi zuenean ireki zuen berriz gutuna Jarak.

... *Niretzako modukorik ba al dago? Herrikoekin asper-asper eginda nago. Hain ikusiak ditut guztiak!*

Batzuetan inbidia ematen didazu. Bai, Jara. Inbidia sentitzen dut zuk aukera duzulako berriz zerotik has-teko. Horrek baditu alde txarrak, eta beldurra ematen digu dena berriro hasi beharrak, baina beste alde bate-tik... Hain da zirrargarria jende berria, leku berriak, taberna, denda, aurpegi berriak ezagutzea! Has zaitez berehala leku interesgarri guztiak apuntatzen, ze bisi-tan joaten naizenean guzti-guztiak ezagutu nahi ditut, entzun? Urkorekin gogoratuko zara, ezta? Ba, beti be-zala dago. Guapo, bai, oso guapo. Eta soltero. Urko beti egongo da zurekin enamoratuta. Hori zortea, zurea! Nahi nuke nik ere nigatik txora-txora eginda dagoen mutilen bat aurkitzea mundu zozo honetan! Irrikaz nago hamazortzi urte bete eta herritik alde egiteko uni-bertsitatera. Pentsatu al duzu zer ikasi behar duzun?...

—Ihintza hau! Zergatik ez dizkit gauza gehia-go kontatzen Urkori buruz?

Jarak lurrean botata zegoen poltsa hartu eta barrutik kartera atera zuen. Hantxe zeukan gor-deta argazkia. Herritik alde egin zuen egunean ateratako argazkia, talde osoarena. Eta bertan ze-goen Urko. Musu eman zion.

... Nik ia erabakita daukat: Psikologia. Ez dizut ezer kontatu, baina nire anorexia hobetzen doa. Orain-

dik dietan jarraitzen dut eta lau kilo hartu ditut. Medikuek esan dute bide onetik noala. Pozik nago, baina, aldi berean, ezin dut ebitatu neure burua batzuetan lodi ikustea. Zaila da azaltzen. Kontraesan hutsa naiz. Sendatu egin nahi dut eta badakit horretarako jan egin behar dudala, baina panikoa diot loditzeari. Lehengo egunean, Interneten irakurri nuen anorexia izan duten asko ez direla sekula guztiz sendatzen. Enfin. Hau txapa, sartu dizudana! Gaurkoz nahikoa eta badakizu orain zuri tokatzen zaizula idaztea! Eta opa-ritu genizun kamerarekin ateratako argazkiren bat bidali, ados? Niretzat fitxatu duzun mutikote ilehoriren bat edo... Kar, kar!!!! Ondo segi, preziosa, musu asko, asko, asko. Ihintza.

—Jara bazatoz edo zer?

Amak oihu egin zion. Jarak gutuna mesanotxeko tiraderan gorde zuen eta gelatik atera zen.

Zu nor zara?

- 14 Jara bakarrik sentitzen zen. Tira, Jara bakarrik zegoen. Bartzelonako eskola berri hartan hasi zenetik hilabete eta erdi pasatu zen, baina kostatu egiten zitzaion bere lekua aurkitzea. Dena zen ezberdina: mahaiak eta aulkiak, hormetako dekorazioa, irakasleek eskolak emateko zuten modua eta, batez ere, jendea. Gainontzeko ikaskideen alboan txikia sentitzen zen. Bartzelonan jendeak beste itxura bat zeukan, janzten askoz ausartagoak ziren eta hamabost urte baino hamazortzi zutela ematen zuen ia-ia. Horregatik sentitzen zen Jara hain txiki, adinean gazteagoa ematen zuelako, eta gainontzeko neskekin alderatuta bere burua non kokatu jakin ezinik, txikia sentitzen zelako. Mundua inoiz baino erraldoiagoa zen eta munstro handi batek eztarritik behera irentsiko zuela pentsatzen hasita zegoen. Bakardadearen munstroak, nola ez.

Gelara iritsi eta bere mahaian esertzen zen, bakarrik. Gainontzeko guztiak berbetan hasten ziren, aurreko egunean gertatutakoez, telebistan ikusitako saioren baten inguruan, halako edo bestelako mutilak zeinen ipurdi tentea zuen, edo erositako azken praken bueltan. Eta Jara bakarrik. Liburu bat atera eta, bere inguruan gertatzen ari zena batere inporta izango ez balitzaio bezala, irakurtzen hasten zen irakaslea sartu arte.

15

—Barkatu...

Jarak burua altxatu zuen. Ezin zuen sinetsi norbait beregana joan zenik eta pozaren irribarrea disimulatu ezinik erantzun zion.

—Bai?

—Zu nor zara? Esan nahi dut, nola deitzen zara?

Galdera hark zur eta lur utzi zuen Jara. Nola zen posible hilabeteko epean bere izena oraindik ez jakitea jendeak! Amorrua eman zion eta irribarrea begirada zorrotz bihurtu zen.

—Jara —erantzun zuen Jarak.

—Aha —besteak—. Zure ile-orrazkeraz ari ginen hitz egiten eta bat-batean ohartu gara ez ginela zure izenarekin akordatzen. Sekula ez dut Jara izena entzun. Bitxia da.

Eta alde egin zuen, besterik gabe. «Bitxia», Jarak hitza errepikatu zuen berekiko. Eta bat-batean ohartu zen berak ere ez zekiela hurreratu zitzaion neskaren izena. Bere ile-orrazkeraz ari zen neska taldeari begira jarri zen haien izenak gogoratu nahirik: Amanda, Merce, Laia, Marijo eta... Alferrik, ez zuen gogoratzen bosgarren neskaren izena. Harelere, bere burua justifikatu zuen pentsatuz ez zela gauza bera. Azken batean, Jarak hogeita hamar ikaskideren izenak ikasi behar izan zituen, eta gelakideentzat, berriz, Jara zen neska berri bakarra. Abantaila handia zen hori. Une horretan neskak barrez hasi ziren. Jarari eztarria korapilatu zitzaion. «Zer gertatzen zaie orain? Zer gertatzen da nire ile-orrazkerarekin? Hain zozoa al da?». Negar egiteko gogoa zeukan eta gelatik alde egin zuen.

* * *

Komunean babestuta sentitzen zen. Han, gutxienez, inor ez zen berarekin sartzen. Bakardadea ezberdina da bakarrik zaudenean. Jendez inguratutako bakardadea da gaizki sentiarazten zaituena. Komunean bakarrik zegoen eta kito. Jara eta

bere irudia ispiluan islatua. Aurpegia bero zeukan. Amorruek, minak eta lotsak masailak gorriarazi zizkion. Txorrota zabaldu eta urez busti zuen aurpegia. Begietan ur hotzaren sentsazioa sentitu zuen eta malkoen gaziarekin nahasirik efektu arraroa sortu zuen, bat-batean begi-ninia izoztu balitzaio bezala. Aurrez aurre zegoen bere irudiarekin, eta detaile guztiak aztertu zituen. Estreinakoz, itsusia iruditu zitzaion ikusi zuena. Sekula ez zuen pentsatu neska polita zenik, baina ezta zatarra izan zitekeenik ere. Ordura arte. Komun hartan isolatuta, gainontzeko gelakideen barreak entzun ostean, bere izena oraindik ezagutzen ez zutela ikusita, Jara baldarra, arrunta eta herrikoa sentitu zen. Batere estilorik gabea. Bat gehiago, nabarmentzen ez den norbait. Masa.

«Bartzelonara? Zer ondo! Han berria izango zara eta denak izango dituzu inguruan, nor zaren, nondik zatozen eta nolakoa zaren jakin nahian. Exotikoa izango zara, Jara, eta hori abantaila handia da. Zer inbidia ematen didazun!».

Jarak Ihintzaren hitzak gogoratu zituen. Bartzelonara joan aurretik esan zizkionak. Ihintzaz akordatu zen eta pentsatu zuen hura berehala bi-

lakatuko litzatekeela gela hartako erregina. Ihintza ausarta zelako, irekia, berba ematen zuena, alaia. Ihintza bezalakoentzat abentura zirrargarria da zerotik hastea, jendea ezagutzea, lagun berriak egitea. Jararentzat, aldiz, sufrikarioa zen *hasi* hitza. Aldaketek ikara ematen zioten eta, berak zeukan onena erakutsi beharrean, oskolean ezkututzen zen, barraskiloak bezala. Arraroa zen jende berriarentzat. Itxia.

—Egia esan... Orrazkera hau... Zenbat urte dira mozketa berbera daukadala? Akaso arrazoia dute, Jara. Beharbada, bada ordua aldatzeko. Hiri berri batean bizi zara eta egokitu beharra dago.

Ispiluaren aurrean, kopeta-ilea hartu eta atzerantz bota zuen, melenatxoa mototsean batu, eta melena luzeago batekin imajinatu zuen bere burua. Bai, egia zen. Orrazkera erabat zozoa zeukan, infantila. Bazuen garaia aldatzen hasteko. Akaso ile-orrazkera berri batek beste aldaketaren bat ere ekarriko zion. Huskeria zirudien, baina Jarari begitandu zitzaion zerbaiten amaiera eta beste zerbaiten hasiera izan zitekeela. Erabakita zeukan, ile-apaindegi moderno bat topatu eta zerbait berezia egiteko eskatuko zuen. Une horretan

ispiluan Jara berri bat topatu zuen, alaiagoa. Begietan dir-dir berezia sumatu zuen, eta ilusio txiki bat piztu zen bere bihotzean. Bartzelonara iritsi zenetik, lehenengo aldia zen ilusioa sentitzen zuena. Seinale ona zen. Bide onetik zihoan, ziur.

—Kaixo, Jara.

Laiak ezustean harrapatu zuen Jara.

—Aupa —erantzun zion.

19

Laia Jararen aldamenen jarri zen, ispilura begira. Poltsatik nezeser bat atera zuen eta barrutik begian marra egiteko arkatza. Batere dardararik egin gabe marraztu zuen begi-lerroa beltzez. Jarak ezin zion begirik kendu gainetik. Laia neska polita zen. Estiloa zeukan. Nabarmena zen gelakideen artean onartua zegoela. Eta, gainera, «Kaixo, Jara» esan zion komunean sartu zenean. «Kaixo, Jara». Irribarretsu.

—Laia...

—Bai? —arkatza eskuan jarraitzen zuen, ezkerreko begia marrazten hasia zen.

—Zera... ile-apaindegira joan nahi nuke, baina ez dut bat ere ezagutzen. Pentsatu dut akaso zuk...

Laiak begia pintatu eta arkatza nezeserrean sartu zuen. Gero, Jarari begiratu zion, zuzen. Irribarrea luzatu eta begi-keinua egin zion.

—Neuk lagunduko dizut auzoko ile-apaindegi-
rik modernoenera!